

**Ebazpena: R017/2023**

**Espedientea: 19/2015**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeinaren helburua baita FUSA zergapekoak 2006-2009 aldian BEZari eta sozietateen gaineko zergari dagokienez izan duen tributazio-proportzioa zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 19/2015 espediente-zenbakiarekin.

### **I. AURREKARIAK**

**1.-** FUSA sozietateak Gipuzkoan du zerga-egoitza, eta tresnak merkaturatzen ditu handizka.

**2.-** Enpresak aipatutako urteetan eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu zituen zergak (aurreko urteetan horretarako behar zen atalasea gainditu zuelako), eta % 98 aitortu zion GFARI eta % 2 Estatuari.

3.- ZAEAREN eragiketa-bolumena egiaztatzeko eskaera baten ondorioz, GFAK 2011ko azaroaren 9an aktak hasi zituen eragiketa-bolumenaren proportzioa aldatzeko, salgaiak bezeroarengana garraiatzen hasteko unean zeuden kokalekuaren arabera.

Hala, Gipuzkoan biltegiratutako salgaiak foru-lurraldean zeuden, eta FUSAren hornitzaileek bezeroei zuzenean bidaltzen zizkieten salgaiak, ostera, hornitzailearen egoitzan.

4.- 2014ko abenduaren 22an, ZAEAK inhibitzeko eskatu zion GFARI, eta GFAK, 2015eko urtarrilaren 29ko idazki bidez, bere irizpideari eutsi zion.

5.- 2015eko otsailaren 20an, ZAEAK Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen gatazka, zeina 19/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetu baita prozedura arruntaren bidez.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

*a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai itundutako zergen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia*

*dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zerga edota balio erantsiaren gaineko zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.*

*b) Banakako zerga-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.*

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

## **2.- Eragiketen kokapena**

Administrazio-espeditetik zerga-garrantzia duten inguruabar hauek egiaztatu dira:

a.- FUSAk aipatutako ekitaldietan merkataritza-ordezkaritzak izan ditu Bartzelonan, Valentzian, Madrilen, Sevillan, Zaragozan eta Gasteizen.

b.- Horietan guztietan FUSAko produktuak merkaturatzen diharduten langileak daude.

c.- Ordezkaritza guztiek, Gasteizkoak izan ezik, establezimendu bat dute.

d.- Bezeroek zuzeneko kontratazioa egiten dute ordezkarietzako saltzaileekin, eskaerak faxez, telefonoz edo zuzenean haiekin harremanetan jarriz egiten dituztenean.

e.- FUSAk salgaien biltegi bakarra du Gipuzkoan.

f.- Bezeroek eskatutako salgaiak Gipuzkoako biltegietan badaude, handik bezeroen instalazioetara garraiatzen dira; bestela, hornitzaileen biltegietatik bezeroen instalazioetara garraiatzen dira.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren eta Arbitraje Batzordearen 7/2021, 16/2022, 160/2022 eta 163/2022 ebazpenen arabera, enpresak merkaturatze-lana egiteko baliabide materialen eta giza baliabideen egitura nahikoa duten merkataritza-ordezkaritzak non dituen, han sortzen da lan horren balio erantsia.

Auzitegi Gorenaren 2323/2011 Epaiak (ROVER Epai gisa ezagunagoa) jada baztertu zuen garraioaren abiapuntua, zergaren aplikazio-lurraldearen barruan igarotzen diren garraioen kokapenaren irizpide gisa.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Adieraztea EAetik kanpoko merkataritza-ordezkaritzek kudeatutako merkaturatze-eragiketei dagozkien salmentak lurralde erkidean kokatzen direla, eta Gipuzkoako merkataritza-langileek kudeatutakoak, berriz, foru-lurraldean.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta FUSArri jakinaraztea.